



PLATINOZKO DISKOA AINHOA ARTETARENTZAT

Abeslari tolosarrak 'La vida' diskoa kaleratu zuen abenduan eta dagoeneko 200.000 ale saldu ditu » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-01-27

VII. URTEA 1.613. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mozorroak lau taldetan banatu ziren baserri baserri eskean aritzeko. A. IMAZ

HOTZAK, HAIZEAK, ELURRAK, TXIMISTEK... EZIN IZAN DUTE LEITZAKO IHOTEEKIN

LEITZA Eguraldi kaskarrari aurre egiteko 130 lagun inguru aritu ziren eskean; gaur izango dute lhoten azken eguna leitzarrek 4



JON FERNANDEZ/LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

IÑAKI ANTIGUEDAD HIDROGEOLOGOA

«Gertutasuna sortu behar da, globalizazioak dioenaren aurka»

TOLOSA Bizkaitarrak hitzaldia emango du gaur Kultur Etxean, ezker abertzaleak antolatuta 2

Belabietako instalazioak zabaltzea aztertzen ari da Udala

IBARRA Iñaki Ugarteburu Aldundiko Kirol Zuzendariak Ibarra bisitatu zuen 6

N-1 errepideko autobus geltokiaren lanei hasiera eman diete

IRURA 5 hilabete inguru iraungo dute lanek; errepidea eta zubia zabalduko dute 7



www.mondragon.edu/prest



MU unibertsitatearen ate irekiak. Zatoz zure etorkizuna ezagutzera!

E Elkarrizketa**IÑAKI ANTIGUEDAD** > Hidrogeologoa**L Laburrak****Futbolaren Eskolari buruzko bilera, gaur**

KIROLA • Berazubiko tribunan bilera egingo dute gaur, Futbolaren Eskolan parte hartuko duten gazte-txoen gurasoekin. Bileraren hasiera 19:00etan da.

Langabetu eta langileentzat ikastaroak

GIZARTEA • Langileentzat eta langabetuentzat ikastaroak antolatuta dituzte Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuan. Otsailaren 15ean, esaterako, Fresagailua Fagor 40 orduko ikastaroa eta Officeko teknikaria 210 orduko ikastaroa emango dute. Oraindik ere haur-entzako leku dagoela esan dute, eta izena eman nahi duenak ikastetxera jo dezake edota 943 65 11 47 telefono zenbakira deitu. Ikastaroak doan izango dira

Etzi egingo dute Tolosa Kantari ekimenerako entsegua**ERREDAKZIOA**

Larunbat honetan, azken larunbatero egin ohi duten moduan, Tolosa Kantari ekimena izango da. Horretarako, aste honetan entsegua egingo dute, baina hau, egunez aldatuko dute. Izan ere, orain arte asteazkenetan izaten zuten, baina aste honetan, ostegunean izango da.

Kultur Etxeko lehenengo solairuan, 20:00etan izango da etzi entsegua. Bertan, larunbatean, kantatuko dituzten abestiak entseatuko dituzte, Evaristo Elduainen eta bere laguntzaileen gidaritzapean. Besteak beste, Inauterietako abestiak banatuko dituzte doazenez artean. Entsegua irekia da eta antolatzaileek parte hartzera gonbidatzen dituzte herritarrak.

Tolosa Kantari 12:00etan hasiko da, ohi bezela, Tontokaletik, eta «euskaraz kantatzea atsegin duen guztiei irekia» izango da.

«Globalizazioak dioenaren aurka, sortu behar duguna gertutasuna da»

Gizartea • Hitzaldia emango du gaur hidrogeologoa bizkaitarrak, 20:00etatik aurrera, Kultur Etxean; eskualdeei eman beharreko garrantziaz ariko da, besteak beste.

IÑIGO TERRADILLOS

Ezker abertzaleak abenduan ekin zion hitzaldi sortaren baitan, Iñaki Antiguada hidrogeologoa (Bilbo, 1955) txanda izango da gaur. *Lurraldetasunak lurraldea behar du. Eskualdeak bizirik izan burupean*, Kultur Etxean ariko da solasean, 20:00etatik aurrera.

Zeintzuk izango dira gaurko hitzaldian ikutuko dituzun puntu nagusiak?

Autodeterminazioak, ezkerreko ikuspegi batetik behinik behin, bestelako gizarte eredua bideratzeko balio behar digu, eta gizarte eredu horretan niretzat funtsezkoa da bestelako lurralde egitura bat ere izatea, lurralde egitura horizontala, non eskualdeak bizirik egongo diren, igarotzeko eskualdea izatera kondentatu gabe, hiri handien gordailu izan gabe; izan ere, eskualdeak bizirik egoteak aldaketa handiak dakartza produktzioa, garraioa, kontsumoa kaitean, eta batez ere, gure pentsakeran. Honen guztiaren inguruan ariko naiz.

Zer ekarpen egin nahi diezu herritarrei?

Transbertsalitate bati eutsiz hainbat elementu agerraraziko ditut. Ziurrenik ez dut onorio argirik aterako, baina, entzuleek etengabeko edo eguneroko gogoeta horretan, hainbat elementu berri integratzea da nire asmoa. Nire ustez, Euskal Herrian, sozialismoaz, kapitalismoaz, eredu berriez hitz egiten dugu, baina hutsune asko ikusten ditut, eta jendeari probokazio hori ere egin nahi diot.

Zein hutsune, esaterako?

Esaten dugu garraioa eta kontsu-



JON FERNANDEZ/LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

moa gutxitu egin behar ditugula, baina, horiek arrazionalizatuz gero ekoizpena ere ari gara arrazionalizatzen. AHT eta saltoki handiak hartuko ditut adibide bezala, hitzaldiaren hainbat unetan. Ekonomia beste modu batera ulertu behar dugu. Nire azken mezua eraldaketa horretan, bestelako gizarte eredu horretan, oinarritzen da: ekoizpenaz, garraioaz eta ekonomiaz beste modu batean pentsatu behar dugu, aldaketa sakonak egingez. Eta, hori dena nola egin eskualdeetatik pentsatu behar dugu, hau da, nola eman garrantzia eskualdeei. Eskualde biziak izatea lortu behar da, ez azpiegitura handiek kondentatzen dituzten igarotzeko eskualdeak.

Gaur egungo gizartean zaila da hori.

Gertutasuna sortu behar dugu, hurbilekoari garrantzia eman, hori da, hain zuzen ere globalizazioak eskatzen digunaren guztiz kontrako. Zenbat eta gorago, urrunago hartu erabakiak, badirudi garapen gehiago dugula. Hori da globalizazioa. Nik, ordea, horizontaltasuna defendatzen dut bertikaltasunaren aurka. Bertakoari eman behar zaio garrantzia, bai ekoizpene-

an, bai garraioan, bai eta kontsumoan ere. Iparraldean Laborantza Ganberatik defendatzen ari diren elikadura burujabea jarriko dut hor adibide bezala, esaterako.

Zer hartzen duzu erreferentzia bezala?

Hiri handietan ikusten dudanak eta herri txikiak du eragina nire gogoetan. Eskualdeetan, batez ere, elikagaien gertatzen da; niretzat geroz eta garrantzitsua da inguruko gauzak erostea. Hiri handietan, ordea, ez dago hori, erosleek soilik prezioari begiratzen diote. Produktu bakoitzaren atzean sartuko bagina gaur egun gizartean dagoen tragedia soziala eta ekonomikoa ezagutuko genuke gertutik. Krisia aipatzen denean, benetako krisia ez dago finantza sistemaren krisian baizik eta horren atzean: krisi soziala, edo krisi ekologikoa, klima aldaketa eta abar. Benetan nahi badugu krisi hori gainditu, muinera jo behar dugu, eta muinera jotze horretan lehenengo mundukoak omen garenok geure bizimodua aldatu behar harra aurkituko dugu. Kontsumoa arrazionalizatu behar dugu. Jaurritzak kontsumo iraunkorren alde egiten du kanpainan, eta niri

hori ez zait gustatzen. Edozein kasutan, kontsumo arduratsua bultzatu behar dugu, gutxiago kontsumituz, eta kalitatea galdu gabe. **Lurralderik gabe ez dago lurraldetasunik...**

Lurralde antolaketa garrantzi handia ematen diot. Nire ustez, hiri eta landa eremuaren desberdintasunak apurtu behar dira. Hiri eremua zerbitzu eremua da, eta landa eremua hiri eremuaren gordailu eremua da: ura behar bada urtegiak landa eremuaren kokatuko dira; garraio azpiegiturak abiapuntu eta helburu hiri handiak dituzte, eta kondentatzen dituzte eskualdeak igarotzeko eskualdeak izatera, eta horren adibide AHT da; zaborrak hiri handietan sortzen dira, baina errauste plantak kanpoan... Horregatik, nik beti esaten dut lurralde gabe ez dagoela lurraldetasuna, eta lurraldetasuna ez da marko politiko, geografiko, juridiko hutsa. Horrez gain, lurraldetasuna lurraldea da; lurraldea aldarrikatzen dudanean ez dut esan nahi hiri handiak desagertu behar direnik, baizik eta, *kea* jaitsi behar zaiela, eta neurriko zerbitzuak eta erabakiak eta leku guztietan hartu behar direla esan behar da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Joan den igandean jokatu zen lehendabiziko jardunaldia. HITZA

Aitor Villena doa lehenengo postuan

Xakea » Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa ari da jokatzen asteburuetan; oraindik izena emateko aukera badago.

ERREDAKZIOA

Aurreko igandean Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa hasi zen. Lau igande goizetan jokatuko dute, Tolosako Kultur Etxeko areto nagusian. 24 ikasle aritu ziren lehendabiziko saioan, Tolosa, Iba-

rra, Villabona, Anoeta, Alegia eta Asteasuatik etorrira. Saio honen ondoren Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Villena jarri da lehen postuan, partida guztiak irabazi eta gero. Puntu bakarrera, ordea, zazpi jokalaritatu, beraz, oraindik asko geratzen da txapelketa erabakitzeko.

Txapelketan parte hartzeko aukera zabalik dago oraindik. Horretarako datorren igandean goizeko 11:00etan Kultur Etxera agertu beharko dute eskualdeko eskolameek.

Laskorainek ezin izan du Allerrurekin

Areto futbola » 0-1 galdutuen talde horitxoak larunbateko partidaren azken minutuetan jasotako gol baten ondorioz.

ERREDAKZIOA

Laskorainek galdutuen talde larunbatean Lezoko Allerruren aurka jokatuak derbian. Horitxoak maila txukuneko partida jokatu zuten baina ez zuten ate aurrean asmatzen jakin eta ihesi joan ziren hiru puntuak Usalbaldik, azken minutuetan jasotako gol baten erruz.

Derbia, txapelketako lehen jardunaldian Lezoko jokatutakoaren oso antzekoa izan zen. Ikastolakoak nagusi izan ziren jokoan, taktikoki erraz menderatu zuten talde lezotarra eta nagusitasun hau gol aukeretan islatzen ere asmatu zuten. Arazoa ate aurrean egon zen, ez baitzuten ateratzen asmatu. Gol aukera guztiak erratu zituzten gol bat bera ere egin gabe.

Hogeita hemezortzi minututan Laskorainen gola noiz etorriko itxaroten egon eta gero, ez zen beste ezer aipagarririk gertatu. Ber-

dinketarekin konformatu beharko zela zirudienean, amaierarako bi minuturen faltan, lezotarrak izan ziren gola sartu zutenak. Kolpeari adoz erantzun zioten tolosarrek azken ahaleginean, eta gertu ibili ziren puntuak berreskuratzetik. Salidasen bi zutoinkadekin, baina alferrik.

Aurreko jardunaldian golegileen zerrenda nabarmentzen bazen, aste honetan protagonista argiak atezainak izan ziren, lezotarra nahiz Laskoraingoa. 0-1eko azken emaitzak beste zerbait pentsarazi dezakeen arren, neurketako minutu dezentetan eraso jokoak defentsalanari gailendu zitzaion. Endika tolosarrak geldiketa dotoreak egin zituen lezotarren kanpoko jaurtiketetan, eta jasotako golean ez zuen inolako aukerarik izan atezain gazteak.

Porrot honekin Laskorain sailkapeneko erdiko postuetan katiatuta gelditu dela esan behar da, orain bederatzigarren dago, eta datorren asteburuan Sestaora bidaiatu beharko du Ancliderra bisitatuzera. Plaza paregabea taldeak bederatzigarren postu hori baino gehiago merezi duela aldarrikatzen.

Partida erosoan izan da Bide-Bide Ibizarentzat

Saskibaloia » Hasiera-hasieratik joko maila ona erakutsiz garaipen erraza lortu zuten CNP-UPNA taldearen aurka.

ERREDAKZIOA

Azken asteetan joko maila apala erakutsi ondoren azken asteetan partida erabakiorra irabazi zuten Iruñako CNP-UPNA talde nafarraren aurka. UPNAk baja garrantzitsuak zituen, eta horrek kanpotarren barneko jokoak ahaldu zuten. Eguraldiak eta ordu aldaketak ez zuten asko lagundu Usabalera gerturatzeko.

Lehen laurdenean ondo hasi zuten etxekoek, erreboteko lan bikaina eginaz eta kanpoko jaurtiketan fin ibiliz. Honela, lehen aldeak eskuratzen joan ziren. Kanpotarren aldetik pibotek eginiko puntuek bakkarrrik mantentzen zuten taldea partidaren. (20-12)

11-2ko partzial batetik hautsi zuten etxekoek partida. Nafarreko saskiaren bidea lortzeko sekulako zailtasunak eduki zituzten. Mikel Txikik, mugimendu egokiak eta azkarrak praktikan jarri zituen bere defendatzailea behin eta berriro erotzeko. Aipatzekoa Unai Marley-ek etxean eginiko debuta denboraldi honetan. Atsedendira (39-20) iritsi ziren La-

kun antolatzailearen hiruko batekin.

Atsedendialdiaren ondoren 20 puntuko abantailak bere horretan mantendu ziren etengabeko saskiratze trukaketa batekin. Azken laurdenean partidako abantailarik handiena eman zen, 24 puntu. Handik aurrera taldea lasaitu eta kanpotarrek bere horretan jarraitu zuten markagailua txukuntzeko asmotan.

Eginiko defentsa gogorra eta astean zehar entrenamenduetan erakutsitako intentsitatea izan ziren partidako gakoak garaipena poltsikoratzeko. Aipatzekoa Ionek bere peñari eskainitako partidara 14 puntu eta 12 erreboterekin.

Ainhoa Arteta abeslariak platinozko diskoa jaso berri du

Musika » 'La vida' izeneko bere azken lanarekin 200.000 disko saltzeagatik eman diote saria soprano tolosarrari.

ERREDAKZIOA

La vida izeneko bilduma lana kale-ratu zuten Ainhoa Artetak 2008ko abenduan, eta dagoeneko 200.000 ale saldu ditu. Hori dela eta, Platinozko diskoa eman diote. Tolosarrak «oso hunkiturik» jaso du saria New Yorken; «zoriontasuna baino ez dit ekarri lan honek, eta bideak ematen didan lekura jo behar dudala irakatsi dit», adierazi du.

Azken mendeko abesti ezagunak bildu ditu disko honetan. Due-



Azken urteetako abesti ezagunenetako batzuk bildu ditu Artetak. HITZA

la hilabete Urrezko diskoa jaso zuten Donostian, eta orain, Platinozkoa, bere «bigarren etxea» den New Yorken. Tolosarra 17 urtez bititu zen AEBetako hiri handi ho-

netan eta askotan itzultzen da ikasteko edo Metropolitan antzokian abesteko. Saria jaso ostean Madrilera doa. Bertan eskainiko du diskoaren aurkezpen kontzertua.

Ainhoa Atxaga izan da garaile nesken banakako atalean

Mahai-tenisa » Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa ari da jokatzen; igandean Iruenen aritu ziren lehian, alebinen mailan.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Eskolarteko Mahai Tenis Txapelketa jokatu zuten larunbatean Irungo Arteleku kiroldegian. Oraingoan alebinen txanda izan zen, eta hauek banaka lehiatu ziren. Denera 120 mutilek eta 30 neskek hartu zuten parte.

Jokalariek 4 eta 5 lagunetako taldeak osatu zituzten eta hauen artean ligaxkak jokatu zuten jardunaldia. Eskualdeko dago-kionean, mutiletan Dr Fleming Ikastolako Pablo Goenagak bakkarririk lortu zuten lehendabiziko fase hori igarotzea. Nesketan berriz, ikastola berdineko ordezkaririk ziren Ainhoa Atxaga eta Elixabet Mosqueira oso ongi aritu ziren, eta finalurrekoetara iritsi ziren. Elkarren aurka aritu ostean Ainhoa Atxaga gailendu zen, eta bera izan zen txapelketako irabazlea, nesken taldean.

GLOTODIDAKTIKA
IKASTAROA
DONOSTIAN

Otsailaren 2tik martxoaren 13ra
Ikastaroaren prezioa: 305 €
Izena emateko
(urtarrilaren 29ra arte):
943 327 172
(GIPUZKOAKO AEK)

IZAN IRAKASLE AEKni!

ae

Gaur lehortuko dira Leitzako lhoteak

Leitza » Euria, kazkabarra, tximista eta elurra egin arren baserrik baserrira ibili ziren atzo eskean mozorrodunak.

ASIER IMAZ

Eguraldi hotz eta bustiarekin ekin zioten baserrietako eskeari atzokoan. Ondoren, elurra ere lagun izan zuten.

09:00etan 130 lagun inguru elkartu ziren herriko plazan. Lau taldetan banaturik Leitzako lau ere-

mu zeharkatu zituzten txarangaren eta herriko txistularien laguntzaz, mozorroturik eskean ibili ziren gizon-emakumeek.

Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara joan ziren puske biltzera. Baserritatean mokadu bat jan eta dantza saioa burutu ostean,

hurrengora. Amaiera? Egun guztia horrela igaro ondoren, puske biltzaileak 22:00ak inguruan iritsi omen ziren herriera.

Herrian umeentzat jolasak

Batzuk eskean zebiltzan bitartean, herrian umeentzat puzgarriak jarri zituzten Amazabal pilotalekuan 16:00etan. Egunarekin amaitzeko Gau-Bela taldeak emanaldia eskaini zuen Karrapen. Azkenik aipatu, Leitzako lhoteak gaur ospatu dutela azken eguna.

» EGITARAUA

libeltzak 27, gaur

■ **09:30.** Baserrietako eskea Erasote auzoan barna.

■ **11:30.** Umeentzako ekitaldia: *Musika tresnen fabrika*, Sointek Produksioak-en eskutik.

■ **14:30.** Aurrera Elkartean bazakaria.

■ **16:30.** Ume eta gaztekoen kalejira Incansables txarangaren laguntzarekin.

■ **Ondoren.** Herriko plazan Txoko-

latada, buru handiak, musika eta goxokiak banatuko dira arratsaldean.

■ **18:30.** Garai bateko Atsauren kalejira.

■ **19:00.** Gau-Bela taldea Karrapen.

■ **23:30.** Gau-Bela taldea Karrapen.

■ **Ondoren.** Incansables txarangaren musika.

■ **03:00.** DJ Gutti.



«Me gusta el vino...» kantatuz batzuk, besteak bedeinkatuz. A. IMAZ



Belaunaldi berriak puzgarriekin jolasean. Helduak baserrik baserrira puske biltzen. A. IMAZ

2-16 urte

bi urteko gela • juldutegia • ikastola

uzturpe

herrian hazi eta hezi

izanaldiak kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

ATEAK ZABALIK Emeterio Arresen

urtarrilak 29 osteguna, 18:00etan

Argita 2008. Berrak / Tel. 943 811700 / Fax 94387022 / Berrak@uzturpe.net / www.uzturpe.net

IX. Paco Sanchez Memoriala

Tolosa » 250 igerilari elkartu ziren Usabal kiroldegian; aurtengo sari nagusia Donostiako Fortunak jaso du.

ERREDAKZIOA

IX. Paco Sanchez igeriketa Memorialean jende asko izan zen, Tolosako Usabal kiroldegian ospatu zena. IKTK antolatuta eta Tolosako Udalak lagundutako Memorial honetan alebinak eta benjaminak elkartzen dira urtero. Parte-hartzaile guztiak garaikurrak eta opariak jasotzen dituzte eta gurasoek «gustura» ikusten dituzte euren seme-alaben igeriketa saioa.

Tolosako igerilariekin batera, Donostiako Fortuna, Usurbilgo Urtike eta Ordizia izan ziren; guztira 250 igerilari. Egun horretako sari nagusia (Paco Sanchez) Donostiakoentzat izan zen, Tolosaldeko taldearekin gogor borrokatu ondoren.

Hauek izan ziren Tolosaldeko taldean aritu ziren igerilariak: Leire Erbiti, Ane Iraola, Lide Bengoetxea, Axier Rojo, Iñaki Beitia, Iñigo Deusto, Pablo Uranga, Beñat Urruzola, Ane Peña eta Lide Bengoetxea (2000 urtekoak). 1999 ur-



Joan den larunbatean aritutako IKTKo igerilari batzuk. HITZA

tekoak, Uxue Zabala, Ekain Agote, Iosu Molinero, Unai Iribar, Ander Arruabarrena, Ander Zinkunegi, Jon Urdangarin, Zuriñe Iglesias, Marina Etxarri, Maite Elicegui, Nerea Rodriguez, Nerea Eizaguirre, Irene Etxabe eta Saioa Mateorena izan ziren.

1998. urtekoak, Beñat Lopetegi, Xabier Beitia, Ander Alkorta, Nabíl Hamaine, Aimar Malec, Aitor Zurdo, Julen Urretabizkaia, Iban Juarros, Elene Cuadrado, Maddi Amundarain, Maider Igaitea, Nerea Esandi, Ane Gonzalez, Maitane Kortajarena, Leire Ormazabal

eta Maialen Mujika izan ziren; 1997koak, Lerman Nieves, Jon Ander Peña, Xabier Hidalgo, Idoia Alonso, Irene Zumarraga, Garazi Jaka, Irune eta Maider Alfonso eta Erika Amundarain. Antolatzaileek «balantze oso ona» egin dute.

Zozketako zenbaki sarituak

Tolosaldea IKTK urtero zozketa egiten du eta aurtengo sarituak izan diren zenbakiak hauek dira: urtarriaren laukoan 0342, eta urtarriaren Sean 1.853 (ONCEko zenbakien berdina). «Zorionak sariduen».

Laburrak

UEMAko ordezkaria hautatuko dute etzi

AMEZKETA » Datorren ostegunean 20:30ean Amezketa udaletxean ohiko bilkura egingo dute. Bertan, besteak beste, Palestinaren aldeko mozioa aurkeztuko dute. Tartean ere UEMAko ordezkaria hautatuko dute. Telefonikaren obra lizentzi eskaera ere ezagutzera emango dute, herri sarreran arimairu bat jarri nahi baitute, ADSL zerbitzua eskaintzeko. Naturgas Energiaren 2008ko fakturazioaren %1,5eko likidazioaz ere ariko dira. Bukatzeko, batzordeen informazioa emango dute eta galdera eta erreguetarako tartea ere gorduko dute.

Olaberriak jaso du Euskal Kirolari onena saria

IKAZTEGIETA » Gasteizko lehendakari Leire Olaberriak Euskal Kirolari onenari jaso zuen pasa den asteburuan. 2008ko Euskal Kirolari onena izan da sari honen arabera txirrindulari ikaztegiatarra. Richard Oribe igerilariak ere jaso zuen saria. Pekingo Olinpiar Jokoa eta nazioarteko beste hainbat sari gogoratu dituzte banaketan.

Intxurrek ez du asteburuan jokatzeko izan

ALEGIA » Joan den larunbatean Alegian Intxurreko futboleko mutilek partida jokatu behar zuten Gazteak taldearen kontra, baina haizetea eta eguraldi txarra zela eta, bertan behera gelditu zen. Intxurrek Segura Goierriren aurka jokatuko du datorren jardunaldian, zehazteko dagoen egunean eta orduan.

Tenaren margolanak azken astez jubilatuenan

ALEGIA » Marce Tena ibartarrak bere margolanetako batzuk Alegiako jubilatuen tabernan ditu ikusgai. Aste onetan zehar izango da hauek ikusteko azken aukera. Bertan, begiak, emakumearen gorputza eta ninfak dira nagusi. «Emakumeak argazkietatik kopiatzen ditut, baina paisaia irudimenera esker sortzen ditut. Makillatzea asko gustatzen zait, horregatik dut gustuko begiak ere egitea».

Tontokale eta Larrantz auzoa elkartzen dituen zubia aztergai gaurko bileran

Alegia » Udalak herritarrek bilerara azaltzea nahi du, gero eta proposamen gehiago izateko erabakitzeko garaian.

ERREDAKZIOA

Gaur Alegiako udaletxean bilera interesgarri bat izango da, Udalak deituta eta 19:00etan hasita. Hainbat gai jorratuko dituzte, baina nagusia zubi nagusiari dagokiona da: Tontokale eta Larrantz auzoa lotzen dituen zubian hainbat lan egiten hasi dira, eta gai horri buruzko eztabaida eta erabakia herritarren artean zabaldu nahi du Alegiako Udalak. Deialdia, noski, herritar guztiarentzat da, irekia, norberak bere iritzia eman dezan eta hartu beharreko erabakia hartzeko garaian proposamen eta ideia gehiago kontuan izateko.

«Oraingoz ziurra da espaloian aldaketak egingo direla oinezkoentzat egokiagoa eta erosoagoa izan dadin». Irisgarritasunaren aldetik, hobetzeko egokitzapenak izango dira «baina hortik aurrera erabakitzeko dago zubiari itxura berria eman ala orain artekoa mantentzea, eta abar».

Beraz, «herritarrek honen inguruan zer iritzia duten jakin nahi dugu», hau da, zubi ingurua itxuraldatu bai ala ez eta egitekotan, nola egingo luketen. Horregatik, herritarrek joatea eskertuko dute.

«Zubia aparkaleku gisa?»

Gainerakoan, «zer esana ematen ari den arazo bat» planteatu nahi dute gaurko bileran: aipatutako zubi hau aparkaleku gisa erabiltzen du jendeak, errail bat oztopatu eta trafikoa arazoak sortuz. Horren inguruan ere zer egin aztertuko dute.

Arestian aipatutako gaiarekin batera «memento honetan martxan dauden kaleko lanen inguruan sortzen diren beste galdere eta proposameneri ere tokia egingo diegu». Gaurko bilerari garrantzia eman nahi izan dio Udalak, har daitezkeen erabakiak ere halakoak baitira, garrantzitsuak.

'Zapatero plana' diru laguntza eskola ingururako erabiliko dute

Berastegi » 177.519 euro jasoko du Udalak, eskola ondoko bidegurutzea hobetzeko eta «seguruagoa izateko».

N. URBIZU

Berastegik 177.519 euroko diru laguntza jasoko du Espainiako Gobernutik. Diru hau guztia bide-segurtasunerako eta irisgarritasunerako erabiliko dute. Zehazki eta Aitor Lizartza Berastegiko alkateak argitu bezala, «eskolaren kanpoaldeko bidegurutzea konpon-

tzeko izango da; azken batean segurtasuna bermatu nahi dugu». Eskolakoekin harremanetan jarriko dira orain formularik onena aplikatzeko.

Pasa den larunbatean jaso zuen erantzuna Udalak Espainiako Gobernutik. Agenda 21ek ere jasota zuen proiektu hau eta bide-segurtasunerako diru laguntza bat bideratuta zuen. «Bi diru laguntzak osagarriak izango dira eta horretarako erabiliko dugu». Dirudienaz, otsailaren erdialderako esleituiko dute proiektua.

Eskolaren kanpoaldea hobetu daitekeelako hartu zuten erabaki

hau Berastegin. Bertan, koskak ere jarriko dituzte, trafikoak izan ditzakeen arriskuak gutxitzeko besteak beste.

Lanak langabetuen esku

Espainiako diru laguntza hauek jasotzeko orduan, baldintzetako bat, egin beharreko obretako jendea langabetua izatea zen. «Hemengo obrak behintzat ez dute herritarrek egingo; enpresa bat kontratatuko dugu eta beraiek bete beharko dute baldintza hori». Pausoak nola eman behar diren ondo begiratu beharko da orain. Beste hainbat herri erantzumaren zain daude.

txokoa
h

2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratut!


Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen baitan



ikuskitzuna
Alurr dantza taldearen eskutik

Urtarrilak 30 • ostirala • 22:00etan • Ibarrako Belabieta Kiroldegian

HITZAren harpideduntzat abantailak



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

Belabietako instalazioak hedatzea aztertzen ari da Udala

Ibarra » Udal Gobernuko kideek gonbidatuta bisitatu berri du Iñaki Ugarteburu Kirol zuzendariak Belabietako kiroldegia.

ERREDAKZIOA

Iñaki Ugarteburu, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendaria, pasa den ostiralean izan zen Ibarako Belabietako kiroldegian. Herriko Udal Gobernuko kideekin batera bisitatu zuen kiroldegia gune horretarako egitasmoak elkarrekin aztertuta ahal izateko.

Ibarako Udalak herriari kirol eskaintza hobetzearen aldera eginitako gonbita onartzearen ondoren izan zen Foru Aldundiko ordezkariaren bisita herrira.

Horiek horrela, Txelo Romeo alkateak eta zinegotziak Ibarren

kirol instalazioak hobetzeko Udalak eginiko apustuaren berri eman zioten Kiroldegiko Foru Zuzendariari eta erakunde bien arteko koordinazioa proposatu zioten hartu beharreko neurriak aztertzeko. Izan ere, Udaleko arduradunek azaldutakoaren arabera, Belabietako kiroldegiko zerbitzuak eta eskaintzaren kalitatea areagotu nahi dituzte.

Zentzu honetan, Udaleko arduradunek aztertu dituzten ekimenen berri eman zioten Iñaki Ugartebururi.

Ideien lehiaketa

Zehazki, kirol instalazioak zabalteko ideien lehiaketa bat deituko dute epe ertainean.

Udalaren helburua hainbat faseetan banatuta neurri ezberdinak hartzea da eta horiek gauzateko urteko aurrekontuaren erabiliko



Belabietako kirolgunea zabaldu eta hobetzeko neurri desberdinak hartzeko nahia agertu du Udalak. R. CALVO



dituzte. Txelo Romeoren aburuz, «oso pozik gaude Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zuzendariak gure gonbita onartu eta gure proposamenaren inguruan azaldu duen ardurarengatik».

Era berean, «bisita honek erakunde bien arteko harremanak ezartzeko balioko duelakoan nago, betiere Udalak aurrera begira luzatu nahi duen kirol eskaintzaren kalitatea hobetzeko bidean», gaineratu du Romeok.



Ibarako alkate eta zinegotziak Iñaki Ugartebururekin. HITZA

Motorzaleei ere iritsi zaie krisia



Langostino Moto elkarteak antolatutako azken irteeretakoa irudia. LM.KE.

Ibarra » 27 motorzaleek hartu zuten parte Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatutako urteko lehen irteeran.

ERREDAKZIOA

Ibarako Langostino Moto Kultur Elkarteak urteko lehen irteera igandean izan zen eta bertan 27 motorzaleek hartu zuten parte; «kopuru baxua da beste irteera batzuekin konparatuta, krisia aisialdira ere iritsi da eta egia da irteera bakoitzeko parte-hartzaile kopurua jaisten joan dela», esan du taldeko Aitor Vulcan bozeramaileak.

Bozeramailearen ustez, gainera, igande honetako eguraldia ez zen batera atsegina eta horrek ere jendea etxean geratzera bultzatu zuen. Parte-hartzaileek, gainera, enbor eta orbela ugari saihestu behar izan zituzten Oiartzun eta Lesaka arteko errepidean. Hurrengo irteera martxoaren 29an izango da tartean Inauteriak direlako.

Xabi Fernandez eta Iker Martinez dira Volvo Oceans Race-ko buru

Ibarra » 'Telefonica Azul' ontzia txapelketako laugarren etapako bukaeratik, Qingdaotik, 679 miliatara zegoen atzo.

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez daudeneko *Telefonica Azul* ontzia belako Volvo Ocean Race-Munduko Bira txapelketako lehen postuan daude.

Bikotearen ontziak, zeina Bouwe Bekkingek zuzentzen duen, Ericsson taldearen bi ontziei (3 eta 4), hurrenez hurren, 56 eta 65 miliatara alde ateratze eta 134 milia *Puma* ontziari. *Telefonica Azul* ontzia da, hortaz, garaile eta matxurarik izan ezean lehen postuan iritsiko da laugarren etaparen bukaerara, Qingdaora, hain zuzen. Atzo goizean *Telefonica Azul* Qingdaotik 679 miliatara zegoen.

100 kilometro orduko haizea

Lehiaketa gogorra izaten ari da eta laugarren etapa honetan, gainera, -Singapurretik Qingdaora doana ipar-ekialdeko haize bortitza jasan dute ontziek. Haizeak 100 kilometro orduko indarra hartu zuen

orain egun batzuk eta honek olatu ikaragarriak sortu zituen, ia 14 metroetakoak izan zirenak.

Ontzi batzuek matxurak izan zituzten; *Green Dragonen*, esate baterako, *forestaya* puskatu zitzairen, kubiertatik masta heltzen duen kableetako bat. *Delta Lloyd* ontzian ere arazoak izan zituzten, leman, hain zuzen. Aipatu bi ontziak geldiarazi zituen antolakuntzako eta ezarritako 12 orduko zigorra eta gero hasi ziren berriz lehian.

Atzo goizean ere itsaso zakarra izan zuten lehiakideek eta *Telefonica Azuleko* kapitainak, Bouwe Bekkingek, hauxe esan zuen: «Beste ekaitza baten erdian gaude, haize bortitza dugu. Brankakobela txiki bat besterik ez dugu altxatu. Olatuak azken ekaitzakoak baino okerragoak dira, baina lasaitasunez hartu dugu».

Era berean, *Telefonica Negro* ontziak laugarren etapa utzi du. Aipatu ekaitzak kubiertako eta kroskoaren arteko lotura puskatu zuen ontzian. Oraingo, hortaz, ezingo dute laugarren etapa bukatu eta oraindik ere ez dakite hurrengo etaparen parte hartzeko aukera izango duten; otsailaren 14an Qingdaon hasi eta Rio de Janeiroan amaituko dena.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

MJ09018

E.48 "TOLOSANA" EREMUKO XEHETASUN-ESTUDIOAREN BEHIN BETIKO ONESPENA

Tolosako Udaleko Gobernu Batzarrek, 2008ko azaroaren 24ko bilkuran, besteak beste, ondorengo zati xedatzailea duen erabakia hartu zuen:

BEHIN BETIKO ONESPENEN ERABAKIAREN TESTUA:

ERABAKI DU

LEHENA.-Behin betiko onartzea E.48 "Tolosana" eremuko Xehetasun Azterlana. 2008ko urriaren 13ko erabakian (hasierako onarpena) ezarritako baldintzekin. BISTA ALAI, SAK sustatu du eta Jose Mari Aseginolaza eta Javier Telleria arkitektoek idatzi dute, eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak 2008ko abuztuaren 5ean bisitatu zuen.

BIGARRENA.-Erabaki honen berri ematea Hirigintza departamentuari eta interesatuari."

ERREKURTUOAK:

2008ko azaroaren 24ko Ebazpena behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du, Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezake interesatuek Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta bihar amaitzeko bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Udaltzari, argitaratu edo, kasu bada, jakinarazi eta bihar amaitzeko bi hilabeteko epean. Hori egin ez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu hari eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo usteko ezespene gertatu arte.

Tolosan, 2009ko urtarrilaren 16an

ALKATEA

elketa
jatetxea

- Egurero zabalik
- Egurero menua
- Sagardotegi menua
- Karta

Hernialde 943 65 39 92



Errepidearen eta Trinketearen arteko lur zatian egiten ari dira lanak oraingo. I. GARCIA

N-1 errepidean dagoen autobus geltokiaren obrei hasiera eman diete

Irura » Errepidea eta zubia zabalduko dute; Aldundiak zehaztu duenez, geltoki berriaren lanek bost hilabete iraungo dute.

IMANOL GARCIA

N-1 errepidean dagoen Irurako autobus geltokiaren obrak hasi dituzte. Puntu horretan errepidea zabalduko dute, bai Zilar kalearen ondoan baita zubia bera ere, geltokian geldialdia egiteko hain arriskutsua izan ez dadin. Foru Aldundiak zehaztua duenez, lanak egiteko aurrekontua 391.860 eurokoa da eta bost hilabete epea ezarri du lanak burutzeko.

Obrak egiten hasteko hainbat segurtasun neurri hartu ditu Irurako Udalak. Marimi Ugalde alkateak azaldu duenez, «obrak egiten ari den enpresari Trinketearen ondoan leku bat utzi zaio makinaria uzteko». Bestalde, Zilar kalea norabide batean bakarrik jarri dute, hau da, gorantz joatekoa. Eta behe-
ra jaisteko ere modu bakarrean egin daiteke, Sagasti kaletik, hain justu. «Obrak hasi baino lehen hartu genuen trafiko-neurri horiek, pixkanaka egoera berri horri moldatzen joateko», azaldu du Ugaldek.

Alkateak berak gaineratu duenez, trafiko-neurri berri horiek bere horretan mantenduko dira obrak bukatu ondoren ere: «Zilar kalea zerbait estuago geldituko da eta geltokitik jaisten den jendearen segurtasunerako ere ondo etorriko da Zilar kalea norabide bakarrean izatea».



Goiko argazkian ikusten denez, eguraldia ez da ari laguntzen egunotan langileei. Beheko argazkian, Sagasti kalea, orain norantz bakarrean. I.G.

Oraingo errepidean bertan ez dira ari obrak egiten, baizik Trinketearen eta errepidearen arteko lur zatietan. Hainbat seinale jarri dituzte obrak daudela jakinarazteko. Geroago N-1 errepidean bertan egin beharko dituzte lanak, bai bazterbidea zabalduz baita zubia zabalduz ere. Ugaldek eskatu du obrak eragingo dituzten eragozpenak «barkatzeko» eta gogoratu du herritarrek egindako eskaria zela autobus geltokiaren egoera hob-

tzararena. Halere, alkatea ez dago gustura Foru Aldundiak hartu duen erabakiarekin. «Gure ustez, irtenbide hobeagoa izango zen autobusa biribilgunea hartzea eta gero Laskibarreko errepidetik berrera joatea, baina ez dute erabaki hori hartu». Ugaldek gaineratu duenez, «Laskibarreko geltokia ere egoera txarrean dago eta horri ere irtenbidea eman behar zaio. Horren inguruan, baina, ez du Aldundiak erabakirik hartu».



Zundaketa puntu baten ondoan jarritako seinaleetako bat. HITZA

AHTren aurkakoei zundaketa puntuetan seinaleak jarri dituzte

Anoeta » AHTren bultzatzaileek herritarrei «ezkutatu nahi dietenaren berri ematea» izan da ekintzaren helburua.

ERREDAKZIOA

AHT gelditu! Elkarlanak mendi martxa egin zuen iragan larunbatean Anoetako zundaketa puntuetatik, eguraldi txarrearen ondorioz jende askorik ez bazen animatu ere. Mendi buelta aprobetxatuz puntu horietan hainbat seinale jarri dituzte. Ekintza hori egitearen helburua, «herriko jendeari proiektu horren bultzatzaileek ez-

kutatu nahi dutenaren berri ematea» izan da.

Elkarlanak azaldu duenez, Anoetako herritarrek orain urtebete inguru «argi eta garbi adierazi zuten bere nahia AHTren eraikuntza lanak geratzea zela eta orain gutxi, herrian zundaketak egin nahi dituztelako lurjabe guztiek ezezko borobila eman zieten lurra salduz negozio egin nahi duten txikitzaileei». Herriak zundaketa puntuak zein diren jakin dezan markatu dituzte herrian izango diren 13 zundaketa puntuak. Horrela, «herritarren batek makinak edo bestelako mugimendurik ikusiko balu abixa dezan. Denon artean geldituko baitugu», azaldu dute.


Laburrak

Amasako bidegurutzetik herrigunera bidea itxita

VILLABONA » Udaltzaingotik ohar baten bidez azaldu denez, elizako bidegurutzean obrak direla eta, bihar, hilak 28, Amasako bidegurutzetik Villabonara doan bidea itxita egongo da. Horregatik, Tolosaldeko joaten diren ibilgailuek Villabonara sartzeko Asteasura joateko erabiltzen den sarreratik joan beharko dute.

Ohiko plenoa egingo du gaur Udalbatzak

ALKIZA » Udalbatzak ohiko plenoa egingo du, gaur, 20:30ean udalbatzean. Bertan, besteak beste, 2008-2009 ikasturterako kultura, musika, kirola eta euskararen inguruko jarduerak burutzeko diru laguntzen esleitzea jorratuko dute. Beste gaietako bat Artelatx Ingarugiro Zerbitzuak kooperatibak eginiko eskaera izango da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Leitza.** 09:30ean Baserrietako eskea; Erasote auzora; 11:30ean umeentzat ekitaldia; Musika tresnen fabrika; 14:30ean Aurrera Elkartean bazkaria; 16:30ean ume eta gaztetxoek kalejira; ondoren txokolata; 18:30ean garai bateko Atsauren kalejira; 19:00etan eta 23:30ean, Gau-Bela taldea Karrapen; ondoren Incansables txaranga; 03:00etan DJ Guti.

Hitzaldiak

■ **Ibarra.** Bularreko minbizi nola nabaritu jakiteko hitzaldia Kultur Etxean 17:00etan, Katxalin emakume kaltetuen elkarteak antolatuta
■ **Tolosa.** Iñaki Antiguedaden hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan: *Lurraldetasunak lurraldea behar du. Eskualdeak bizirik.*
■ **Tolosa.** DBHko 1, 2 eta 3. mailako gurasoentzat hitzaldia antolatuta Orixe Institutuak 18:30ean Goroabel eskolako liburategian, *Drogomenpekotasunen prebentzio lana familian izenburupean.* Hilario Garrudo psikologo klinikoa izango da hizlaria.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Inauterietarako karroza eta konpartsetan izena eman dai-teke Kultur Etxen 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek euren emanaldia talaratu zuten, Ibarra Belabietara kiroldegian. BARTOLA JAI BATZORDEA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek 'Piratak' emanaldia eskaini zuten pasa den ostiralean, Ibarra; ikuskizuna oso arrakastatsua izan zen eta guztira 900 lagun bildu ziren bertan.

Piratak Belabietara heldu dira

ERREDAKZIOA

Pailazorik ezagunenek Ibarra Belabietara kiroldegian betetzea lortu zuten pasa den ostiralean. Hain zuzen ere, 900 lagun gerturatu ziren Piratak Pirritx, Porrotx eta Marimotots maitatuen emanaldia ikustera.

Umeen ilusio aurpegiak ikustea besterik ez zegoen, emanaldia arrakastatsua izan zela ziurtatzeko. Algarak, garraxiak eta emozioa bizitu zuten txikiak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen bizipenekin. Gurasoak ere gustura zeuden pailazoaren bisitarekin.

Bartola jaien

batzordearen ekimena

Emanaldia Ibarra Bartola jaien batzordeak antolatu zuen; Batzordeko kideek «Bartola Ibarra egiten ari den lana» azpimarratu nahi izan zuten: «Denok dakigu gure herriko egoera zein den. Guk sortuz irakatsiko diegu elkarlana zer den, ikasi ez duten edo saldu egin duten horiei. Pirata diruzale lapur horien piratak izango gara; elkarrekin ari gara arraunean eta Bartola gure itsasontzia da». Jaiekin batera, bertso jaialdia ere antolatu zuten duela hilabete eskas.



Etoko txikiak ederki gozatu zuten pailazoekin. BARTOLA JAI BATZORDEA

A Agurrak



Urte askoan!

Aimar. Gaur 6 urte. Zorionak Abaltzisketako familaren partetik. Amona belarritik tiratzeko zain dago.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

OKINDEGI / KAFETEGIEN SEKTOREAN LIDERRA DEN ENPRESAK NEGOZIO BERRITZAILA ETA KONTRASTATUAREKIN, ERRENTAGARRITASUN HANDIAREKIN LEITZAN LAISTER EGINGO DUEN IREKIERARAKO HARREMANETAN JARRI NAHI DU:

- BEREZKO NEGOZIOA
- KUDEATU NAHI DUTEN PERTSONEKIN
- DENDAKO ARDURADUNEKIN
- SALTZAILEEKIN

Interesatuak harremanetarako gutuna eta CVa bidali ondoko helbidera: posta kutxa 54 - 20115. Astigarraga